

aleka

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2021 ekaina

06

HIRIGINTZA GARAPENA
Desarrollo urbanístico

08-09

BIZIBERRITZE NEURRIAK
Medidas para la reactivación

10-13

AZKEN BERRIAK
Actualidad tolosarra

15

AGENDA
¿Qué quieres hacer?

AUKERA BERRIAK ETXEBIZITZA ALORREAN

*Nuevas oportunidades
en materia de vivienda* _____ 02or.



ETXEBIZITZA AUKERA BERRIAK ETA ALOKAIUAREN SUSTAPENERAKO NEURRIAK

Gazteen emantzipazioa sustatu eta hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jar daitezen lortzeko laguntzak abiaraziko ditu Tolosako Udalak aurtén.

Etxebizitza politika udal gobernuarentzat lan lero garrantzitsu bezain estrategikoa da, herritarrei esparru honetan aukera berriak eskaintzeko eta tolosarren etxebizitza beharrei erantzuteko. Etxebizitza hutsen inguruko azterketaren arabera, herrian hutsik dauden 253 etxebizitzatik gehienak Alde Zaharrean kokatuta daude, eta askok dute birgaitzeko beharra bizigarritasun baldintzak bete ditzaten. Babestutako etxebizitza eskatzaileen profilari dagokionez, gehienak gazteak dira.

Horregatik, Euskal Herria plazako gazteentzako bizitokien eta Agaramunduko babes ofizialeko etxebizitzaren deialdi berriak egin dira hutsik dauden bizitokiak betetzeko. Alokairua ordaintzeko dirulaguntza ere sortu da, eta etxebizitza hutsak birgaitzeko dirulaguntza osatu eta informazio kanpaina gauzatzeko da udazkenean.

El Ayuntamiento de Tolosa ha puesto en marcha medidas para fomentar la emancipación de las y los jóvenes y lograr poner en alquiler el mayor número posible de viviendas vacías.

La política de vivienda es una de las líneas de trabajo prioritaria y estratégica para el equipo de gobierno, a fin de ofrecer a la población tolosarra nuevas oportunidades en esta materia. De las 253 viviendas vacías que hay en Tolosa, la mayoría están ubicadas en la Parte Vieja y requieren de una rehabilitación integral para cumplir con los requisitos de habitabilidad. En cuanto al perfil de las personas demandantes de vivienda protegida, la mayoría son jóvenes.

Por eso se han realizado nuevas convocatorias para los apartamentos para jóvenes de la plaza Euskal Herria y las viviendas de Protección Oficial de Agaramundu. Se ha creado una nueva subvención para facilitar el pago del alquiler y se complementará la subvención del Gobierno Vasco para la rehabilitación de viviendas vacías. Asimismo, se llevará a cabo una campaña informativa en otoño.

2021. urterako lan leerroak



1. EUSKAL HERRIA PLAZA

19 etxebizitza esleituko dira eta itxaron zerrenda osatuko da.

Se adjudicarán 19 viviendas y se elaborará la lista de espera.

2. AGARAMUNDU

Momentu honetan hutsik dauden 6 etxebizitza beteko dira eta itxaron zerrenda osatuko da.

Se cubrirán las 6 viviendas vacías que hay actualmente y se elaborará la lista de espera.

3. ALOKAIURAKO DIRULAGUNTZAK

Etxebizitarik jabetzan ez duten eta alokairuan bizi diren herritarrei zuzenduta.

Ayudas dirigidas a personas que no tienen vivienda en propiedad y viven en alquiler.

4. ETXEBIZITZA HUTSAK

Etxebizitzak birgaitzeko Bizigune programaren baitan ematen diren dirulaguntzak osatuko dira.

Se complementarán las ayudas concedidas del programa Bizigune para la rehabilitación de las viviendas vacías.



Euskal Herria plazako gazteen- tzako bizitokiak

El objetivo de la nueva convocatoria es facilitar la emancipación de jóvenes de entre 18 y 35 años de Tolosa. Se adjudicarán 19 viviendas y se elaborará la nueva lista de espera para ir cubriendo los pisos vacantes durante los próximos años.



18-35 adin tarteko
gazteen emantzipazioa
errazteko bizitokiak

Tolosarrei etxebizitza alorrean aukera berriak eskaintzeko Udalak aurten martxan jarriko dituen laguntzen artean lehena izan da Euskal Herria plazako gazteentzako bizitokiak dagokiena, euren emantzipazioa errazteko helburuarekin. 19 etxebizitza esleitzeko zozketa egin eta itxaron zerrrenda osatuko da.

Tipologia ezberdineko 25 etxebizitza daude, 12 trasteleku eta espazio komunak, tartean terraza eta garbigailuen gela.

Udalak etxebizitza bat erreserbatuko du mugikortasun urri iraunkorra duten gazteentzat, beren kargura adingabeak edo adinekoak dituztenentzat gordeko da bi logelatako bizitokia eta babes bereziko beste gizarte egoera batzuetarako beste bi bizitoki gordeko dira (genero indarkeriaren biktimak diren emakumeak, ezintasun psikikoa duten pertsonak...).



70 urtetik gorakoei eta mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonen zuzenduta 6 etxebizitza huts esleituko dira.

Euren bizitokietan irisgarritasun arazoak dituzten pertsonen irtenbide bat ematea da helburua. Gutxienez bi logela dituzte etxebizitza guztiek eta apartamentu bat mugikortasun urria duten pertsonentzat egokituta dago (dutxa egokitua, sukalde egokitua...).

Aurtengo deialdian berrikuntza bat txertatu da. Orain arte bezala, etxebizitza bat jabetzan duten tolosarrek ere egin ahal izango dute eskaera, betiere jabetzan duten etxebizitzak irisgarritasun baldin-


tzak betetzen ez baditu; baina, kasu honetan, etxebizitza hori Alokabideren esku utzi beharko da, Bizigune programaren bidez alokairuan jartzeko.

Modu honetara, etxebizitzan irisgarritasun arazoak dituzten 70 urtetik gorako tolosarrei laguntzeaz gain, alokairura bideratutako etxebizitza parkea handitzea lortuko da, herritarrei etxebizitza alorrean aukera berriak eskainiz.

Agaramunduko Babes Ofiziale- ko etxebizitzak

La convocatoria está dirigida a mayores de 70 años y personas con movilidad reducida permanente. Se adjudicarán 6 viviendas. Las personas que cuenten con un inmueble en propiedad también podrán acceder a la convocatoria, pero deberán dejar la vivienda en propiedad en manos de Alokabide, para su puesta en alquiler por medio del programa Bizigune.

Alokairuaren ordainketa errazteko dirulaguntzak



Etxebizitarik jabetzan ez duten eta alokairuan bizi diren 18 eta 35 urte arteko tolosarrei edo behar bereziak dituzten herritar eta familiei zuzenduta egongo dira (bananduak, alargunak, familia gurasobakarrak...)

Alokatutako etxebizitzak Tolosan kokatuta egon beharko du, diru sarrerak kontuan izango dira laguntzak ematerakoan eta horren arabera, alokairuaren % 20, % 30, % 40 edo % 50 ordainduko da. Laguntzak urte beteko iraupena izango

du eta hilean gehienez ere 250 euroko laguntza emango da. Etxebizitza Alde Zaharrean badago, laguntza 300 eurora artekoa izan daiteke.

Hilean, gehienez ere, 250 edo 300 euroko laguntza emango da, etxebizitza Alde Zaharrean kokatuta bada, Alde Zaharrean alokairua sustatu eta Alde Zaharra biziberritzeko

Esta nueva línea de subvención estará dirigida a jóvenes de entre 18 y 35 años y a ciudadanos y ciudadanas y familias con necesidades especiales (personas separadas, viudas, familias monoparentales...). La vivienda alquilada deberá estar ubicada en Tolosa, los ingresos se tendrán en cuenta a la hora de conceder las ayudas y en función de los ingresos, se subvencionará el 20 %, 30 %, 40 % o 50 % de la renta del alquiler. La ayuda se concederá durante un año y la ayuda máxima mensual será de 250 euros o de hasta 300 euros si la vivienda se encuentra en la Parte Vieja.

Etxebizitza hutsak birgaitu eta alokairuan jartzeko dirulaguntza osagarria

Etxebizitza hutsen azterketak agerian utzi du hutsik dauden etxebizitza askok birgaitze sakona behar dutela eta horregatik, Udalak erabaki du Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren baitan ematen diren laguntzak osatzea, etxebizitza hutsen jabeek bizigarritasun baldintzak betetzeko beren etxeak berritu eta alokairuan jartzeko aukera gehiago izan dezaten. Dirulaguntza jasotzeko Bizigune programan izena emanda egon beharko dute etxebizitza hutsen jabeek.

El Ayuntamiento complementará por medio de esta subvención las ayudas que concede el Gobierno Vasco en el marco del programa Bizigune para la rehabilitación de las viviendas vacías, con el objetivo de que las personas propietarias tengan más posibilidades de poder reformar los inmuebles para que cumplan los criterios de habitabilidad exigidos y sean puestos en alquiler.

Hirigintza garapena

Udalerrian auzogune berriak sustatzea da legealdi honetako helburuetako bat, etxebizitza babestuen parkea handitu eta herritarrei etxebizitza alorrean aukera berriak eskaintzeko. Tolosako zazpi eremutan garatu dira proiektu urbanistikoak epe motz, ertain eta luzera begira.




MARTXAN DAUDEN HIRIGINTZA GARAPENAK DESARROLLOS URBANÍSTICOS EN MARCHA




• Iurramendi

Plan Berezia onartuta.
141 etxebizitza:
• 78 libre
• 23 babestu
• 40 tasatu



• Zubizarreta

Plan Berezia izapidetzen.
48 etxebizitza:
• 16 libre
• 32 babestu



• San Kosme-San Damian

Errepartzelazio proiektua onartuta.
50 etxebizitza:
• 30 libre
• 20 tasatu



• San Frantzisko


Xehetasun azterlana izapidetzen.
23 etxebizitza:
• Denak libreak

LANKETA PROZESUAN DAUDEN EREMUAK ZONAS EN PROCESO DE ESTUDIO

• San Esteban

Eremuak duen konplexutasuna kontuan izanda, Legealdi Planean hartutako konpromisoa betez, diagnostikoa amaitu eta Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa martxan jarriko da.

Se pondrá en marcha la modificación del Plan General de Ordenación Urbana para el futuro desarrollo del barrio.



• Amarotz

Lurzorua Visasarena da eta Udala Eusko Jaur-laritzarekin elkarlanean ari da bertako hirigintza garapena bultzatzeko. Bertako etxebizitzak alokairura bideratzea izango da helburua.

El Ayuntamiento trabaja junto al Gobierno Vasco para impulsar el desarrollo urbanístico de la zona y la construcción de viviendas en alquiler.



• Miserikordia

Eremu honetako garapena abian jartzeko lanean ari da Udala bertan etxebizitzak eraiki daitezen.

El Ayuntamiento está trabajando en el desarrollo de este espacio para la construcción de nuevas viviendas.



1,1 milioi €

TOLOSA BIZIBERRITZEN JARRAITZEKO

Ezohiko egoerari aurre eginez, etorkizuneko erronkak ahaztu gabe



Krisiak gehien erasan dituen sektoreak eta kolektiboak babesten eta laguntzen jarraitzen du Udalak aurtengo ezohiko urte honetan ere. Hala, 2021 honetan dagoeneko hainbat neurri hartu dira covid-19aren are onorioak arintzen jarraitzeko eta

guztira, 1,1 milioi euroko inbertsioa egin da, Tolosa suspertzeko.

Ezohiko egoerari aurre egiten jarraitzearekin batera, covid-19 osteko agertoki-rako Tolosa prestatzeko eta etorkizuneko erronkei erantzuteko ere lanean ari da Udala une honetan.

Seguir haciendo frente a las consecuencias de la pandemia y prestar ayuda a los sectores y colectivos más afectados por la crisis sigue siendo prioritario y necesario durante este año. Es por eso que el Ayuntamiento ha adoptado una serie de medidas e invertido más de 1,1 millones de euros en la reactivación social, económica y cultural de Tolosa este año 2021. Asimismo, se está trabajando ya en el escenario post-covid poniendo en marcha proyectos estratégicos para que en el futuro Tolosa siga siendo un referente a nivel social, económico y cultural.

PERTSONAK ARDATZ
Inbertsio soziala % 9 ↑

Gizarte Babesa bermatzeko helburuarekin % 9 igo da gizarte zerbitzuetara bideratutako aurtengo aurrekontua.

Ezohiko egoerak sortu dituen behar berriak erantzuteaz gain, gizarte zerbitzuak sendotzen eta hobetzen ari da Udala: Etxez etxeko arreta zerbitzua, familia esku-hartzea edota Adikzioen Aurkako Tokiko Plan Berria.

GARAPEN EKONOMIKOA
741.000 €

Hiri ekonomia osatzen duten sektore guztiak, eta bereziki kaltetuak izan direnak babesteko neurriak hartu dira eragile ekonomikoekin elkarlanean eta iaizko neurrien balorazio eta hausnarketa egin ondoren.

KULTURARI BABESA, HERRIARI BIZIA
377.880 €

Kale dinamizazioa sustatu, herria bizirik mantendu eta tolosarrei kultur eskaintza zabalaz modu seguruan gozatzeko aukera eskaintzeko, kultur egitarauak mantendu eta jarduera berriak jarri dira martxan.

ETORKI-ZUNA JOMUGA

Tolosa beti izan da herri bizia, ekintzen faktoria bat, herri ekintzailea, aire libreko merkataritza gunea, enpresa txiki eta ertainen kokagunea.

Tolosak berezkoa duen nortasun hori galdu ez dezan, epe motz, ertain eta luzera begira Tolosak dituen erronkei aurre egiten jarraitzeko estrategikoak diren proiektuak abiarazi ditu Udalak.

TOLOSA SUSPERTZEN JARRAITZEKO NEURRIAK



Poniendo a la ciudadanía en el centro de toda decisión, se han adoptado medidas para seguir reactivando Tolosa y puesto en marcha proyectos para que Tolosa siga siendo un referente en el futuro

Tolosarrak erdigunean jarriz, ezohiko egoerak ekarri dituen beharrei erantzuteko eta etorkizunera begira Tolosa covid-19ren ondorengo agertokirako prestatzeko, honako neurriak hartu ditu Udalak. Tolosa ekintzen faktoria bat izan ohi da urte osoan zehar, eta Udala dagoeneko lanean ari da, normaltasunera itzultzean, jarduera hori guztia berreskuratzeko, Tolosak ez dezan duen erreferentzialtasuna galdu.

Merkataritza, Ostalaritza eta Azoka. Tasetan hobariak

421.000 €

Hiri ekonomia babesteko tasetan % 100eko hobaria jasoko dute merkatariek, ostalariek eta azokagileek. Beraz, horiek guztiek ez dute terrazan, azokaren ez eta hondakinen tasarik ere ordainduko.

Terrazan kasuan, ostalariek ez dute espazio publikoaren erabilera handiagoko egiteagatik tasa gehigarrik ordainduko. Eta elkarte gastronomikoen, bidaia agentzien, ikastetxeek... ere ez dute hondakinen tasarik ordainduko.



- Tasak hobaritzea / *Bonificación de tasas*: 421.000 €
- Azokak / *Ferías*: 55.000 €
- Terrazak / *Terrazas*: 160.000 €
- Hondakinak / *Residuos*: 204.000 €



#SUSPERTUTOLOSA bonuak

120.000 €

Tokiko kontsumoa sustatzeko kanpaina berria abiarazi da aurten, merkataritzaren eta zerbitzuen sektoreak indarberitze-ko. Herriko saltokiak babesteaz gain, tolosarrek ere kontsumitzeko gaitasun handiagoa izango dute, erosketa bonu bakoitzeko Udalak diru gehiago jarri duelako, inpaktu ekonomiko handiagoa sortzeko helburuarekin.

Ohiko dirulaguntzak

Udalak mantendu egin ditu aurten ere gizarte, kirol eta kultur alorreko elkarte eta taldeei bideratutako ohiko dirulaguntzak antolatzen dituzten jarduerak garatzen jarraitzeko. Izan ere, herriari bizia eta hiri ekonomiari bultzada ematen baitiote. Era berean, dirulaguntzen deialdi bateratua egingo da aurten, herritarrei erraztasunak emateko dirulaguntzak eskatzerako orduan. Dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik da eta informazio guztia herritarren eskura dago udal webgunean, dirulaguntzen atalean.



Ezohiko dirulaguntzak turismo eta ostalaritza sektoreentzat

200.000 €

Egoerak behartutako itxiera perimetralaren ondorioz, eta ostalaritza sektoreak izandako itxierak direla eta, bereziki kaltetuak izan diren sektoreei (ostalaritza eta turismoa) zuzendutako dirulaguntzak emango ditu Udalak % 40 baino gehiagoko galerak izan dituztenentzat.

- Dirulaguntzak / *Ayudas*: 200.000 €
- Ostalaritza: Guztiei 1.000 € eta 4 mahai baino gutxiagokoei beste 2.000 € / *Cantidad adicional a los establecimientos que tienen menos de 4 mesas* 2.000 €
- Turismoa: Ostalderiei eta bidaia agentziei / *A alojamientos y agencias de viajes* 3.000 €

Kultura babesten eta sustatzen jarraitzeko egitasmo berriak

377.880 €

Ohiko kultur programazioez gain, egitarau bereziak antolatu dira orain arte, eta bide beretik jarraituko da datozen hilabeteetan ere: inauteri egunetan indartutako kultur egitaraua, pazko astean eskainitako ToloFOLK jaialdia eta Kultura Plazara kultur egitaraua. Modu honetara, herriari bizia eman nahi zaio, bisitariak Tolosara erakarri hiri ekonomia suspertzen eta indartzen eta kultura babesten jarraitzeko.



Etorkizunera begirako proiektuak, Udalak jada martxan dituenak

- Azoka Lagunak proiektuaren indartzea eta azokaren berrantolaketa.
- Ostalaritza ordenantza berria.
- Ekintzailetza sustatzeko **Emari-Coworking** gunerari buruzko kanpaina eta ekintzaileei bideratutako jarduerak.
- Merkataritza ehuna sendo mantentzeko **gogoko.eus** proiektua, digitalizazioa eta belaunaldi aldaketa sustatu eta ahalbideratzeko egitasmoak.
- Merkataritza lokalen alokairura eta birgatzeko lanetara bideratutako dirulaguntza lerroaren eguneraketa eta abiaraztea.
- Egoerara egokitutako turismo estrategia eta turismo bulego berria.

AZKEN BERRIAK

Actualidad

HASI DIRA GERNIKAKO ARBOLA BERRURBANIZATZEKO LANAK


Oinezkoei lehenasuna ematea eta bertako irisgarritasuna hobetzea dute helburu, tolosarrentzat eremua atseginagoa, irisgarriagoa eta seguruagoa egiteko. Lanen hasierako bi fasetan, anbulatorioko ibilgailuek soilik erabili ahal izango dituzte kaleko aparkalekuak eta Alondegiko aparkalekuak erabilgarri egongo dira une oro, baita anbulatoriora joateko oinezko hiru sarbideak ere. Aurreikuspenen arabera, udazkenean amaituko dituzte lanak.

Las obras tienen como objetivo dar prioridad a las y los peatones y mejorar la accesibilidad en la zona, con el fin de ofrecer a las y los tolosarras un espacio más amable, accesible y seguro.

EUSKAL HERRIA PLAZAKO ARKUPEETAN ZOLADURA BERRIA

Udala herriko hainbat eremu eraberritze-ko egiten ari den ahaleginean kokatzen da Euskal Herria plazako arkupe azpiko zoladuraren berritzea. Tolosarrei herri garbia, atsegina eta zaindua eskaintzeko helburuarekin egingo dira lanak, espazio publikoa egoerarik onenean mantentzeko. Hiri altzariak (eserlekuak eta iturria) eta saneamendu sareko hartuneak eta sare elektrikoaren kanalizazio osagarria ere berrituko dira.

La renovación del pavimento de los soportales de la plaza Euskal Herria se enmarca en la labor que está realizando el Ayuntamiento en la mejora de diferentes zonas del municipio, con el objetivo de ofrecer a la ciudadanía espacios públicos accesibles, cuidados y de calidad.



El Ayuntamiento está trabajando en la mejora del espacio público para ofrecer a la ciudadanía un municipio accesible, amable y cuidado

15 M³ ZABOR ORIA IBAIAN

Herriko ikastetxeek eta Arrantza Federazioak Oria ibaia garbitu dute Udalarekin elkarlanean. Guztira, 15 m³ zabor bildu dira, batez ere plastikozko ontziak, supermerkatuko orgak, arropa, pneumatikoak edo txakurren gorrotez betetako poltsak.

Jasotako zabor kopurua kontuan hartuta, ibaia garbi mantentzeko eta zaborrik ez botatzeko deia egiten da. Oria ibaia Tolosako beste ingurumen eremu bat da, eta guztion arduraren izan behar da txakun eta garbi mantentzea.



Se han llevado a cabo labores de limpieza en el río, recogiendo un total de 15 m³ de basura



EGUZKI PLAKAK FERIALEKUAN

Eguzki plakak jarri dira Ferialekuan, energia berriztagarrien eta trantsizio energetikoaren aldeko apustua berretsiz. Autokontsumo kolektibokoak izango dira eta sarearen bitartez hurbileko instalazioekin lotuta egongo dira. Horrez gain, klima-ekintzarekiko konpromisoa aitortza jaso du Tolosak Alkateen Klima eta Energia Itunari lotuta, tokiko eremutik energia eta klima trantsizioari heltzeko egindako lanagatik.

HONDAKIN BILKETA HOBETUZ

Tamaina handiko hondakinen, kartoi komertzialaren bilketaren eta edukiontzi marroira eta grisera botatzen diren hondakinen inguruko "Birzikla dezagun gehiago eta hobeto" informazio kanpainak harrera oso ona izan du herritarren artean. Guztira 656 herritarrek hartu dute parte bertako produktuekin osatutako otar baten zozketan. Kanpainari lotuta sortu diren esku-orriak hainbat hizkuntzataraz itzuliko ditu Udalak, informazioa tolosar guztiengana iristeko, eta kanpainan zehar herritarren partetik jasotako ohiko zalantzekin txosten bat ere egingo da herritarren eskura jartzeko.

Herritarrak kontzientziatuz eta informatuz, hondakinen gaikako bilketa datuak hobetzea da helburua.



La campaña "Reciclemos más y mejor" ha tenido muy buena respuesta por parte de la ciudadanía. Con el objetivo de seguir informando y concienciando a la ciudadanía para mejorar los datos de recogida selectiva, se traducirán los folletos de la campaña a varios idiomas y se elaborará un informe con las dudas más frecuentes.



TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PARTAIDETZA PROZESUAREN AZKEN FASEA MARTXAN DAGO



Maiatzean abiatu zen eta datorren urteko martxora arte luzatuko da. Tolosaldeko Emakumeen Etxearen kudeaketa eredia finkatuko da, finantziario partekaturako eredia zehaztu eta erregelamendua, funtzionamendua eta programazioa itxiko dira. Tolosaldeko Emakumeen Etxearen elkarte ere sortuko da Udalaren eta emakumeen arteko hartu emanerako.

2018. urtean ekin zitzaion Emakumeen Etxea definitzeko parte hartze prozesuari. Lehen fasean, etxearen printzipioak, helburuak, filosofia, erabilerak eta jarduera posibleak, eskaini ahal izango

ziren zerbitzuak, beharko liratekeen giza baliabideak... zehaztu ziren. 2019. urtean Emakumeen Etxearen kokalekua zehaztu zen eta aurreproiektua egiteari ekin zitzaion. Laster jasoko du Udalak proiektua eta, ondoren, obra lizitazioa jarriko da martxan urtea amaitu aurretik lanekin hasi ahal izateko.

Bigarren fase honetan ere partaidetza prozesuak hasieratik izan dituen lan taldeak mantenduko dira: lan talde tekniko-politikoak, talde eragilea eta Emakumeen Gune Zabala.

Fase final del proceso participativo

Se definirán el modelo de gestión de la Casa de las Mujeres de Tolosaldea, el modelo de financiación compartida y se determinarán también el reglamento, el funcionamiento y la programación.

FAMILIA GURASO- BAKARREI LAGUNTZAK

Familia ugariet dituzten onura berak jasoko dituzte datorren ikasturtean eta beraz, Musika Eskolako eta kultur tailerretako prezioetan % 50eko jaitsiera izango dute eta Euskaltegiaren kasuan, ez dute matrikularik ordaindu beharko.

Era berean, zaurgarritasun egoeran dauden familiek ere jaitsierak izango dituzte prezioetan bizikidetzaren unitatea eta honek dituen diru sarrerak kontuan izanda.

Las familias monoparentales tendrán acceso a los mismos beneficios que las familias numerosas en los precios públicos

ZUMARDITXIKIAN AURRERAPAUISOAK

Zumarditxikia berreskuratu eta herritarren eskura jartzeko lanean jarraitzen du Udalak. Dagoeneko proiektuaren idazketa esleitu da eta Sestra Ingeniería y arquitectura S.L. enpresa arduratuko da proiektua garatzeaz. Proiektuaren idazketak bi fase nagusi izango ditu: lehenik eta behin, azterketa lana egingo da eta dauden alternatiben arteko konparaketa, eta ondoren, exekuzio proiektua idatziko da. Proiektua herritarren parte hartzearekin garatuko da.

Proiektuak, besteak beste, genero ikuspegia txertatuta duen Mugikortasun

Plana, eta herritarrekin Tolosatzen prozesuaren baitan partekatu eta landu zen aurreproiektua hartu beharko dituzte kontuan. Gehienez ere 7 hilabete izango dituzte enpresak Zumarditxikiaren berrantolaketarako proiektua garatzeko, eta beraz, Udalak esku artean izango du proiektua datorren urte hasierarako.

Zumarditxikiko proiektua garatu ahal izateko, aurretik, bertako bizilagunei aparkaleku aukera berriak eskainiko zaizkie. Horretarako, epe motz, ertain eta luzera begira aparkaleku alternatibak lantzen eta aztertzen ari da Udala.

El Ayuntamiento ya ha adjudicado la redacción del proyecto de Zumarditxikia que se desarrollará en dos fases y con la participación de la ciudadanía. Se prevé que el proyecto esté finalizado en un plazo máximo de 7 meses, por lo que el Ayuntamiento tendrá en sus manos el proyecto a principios del 2022.



la amaituta daude lehen faseko lan sakonak eta dagoeneko hasiera eman zaie bigarren faseko lanei.

Lanak amaitzean, protagonismo osoa izango dute oinezkoek, eremua irisga-

LASKOAINEN LANAK AURRERA DOAZ

rriagoa izateaz gain, "bizitegi eremua" izango delako Laskoain kalea eta, beraz, autoek abiadura murriztu beharko dute eremu horretan.

Kalea eraberritzearekin batera, "Gune Bizikiak" proiektua garatuko da merkataritza jarduera sustatzeko helburuarekin.

SANTA LUTZIA- GUADALUPE EREMUAREN GARAPENERA- KO OINARRIAK

Eremu honen garapena ahalbidetzeko lehen urratsak egin ditu Udalak. Eremuaren diagnostikoa eta Paisaiaren Ekintza Plana egin dira epe ertain eta luzera begira garatu beharreko ekintza txikiak eta eraldaketa handiak zehazteko; horiek guztiak HAPOnen berrikuspenean egiten denean Plan Orokorrean jaso beharko dira etorkizunera begira horiek aurrera eramanez ahal izateko.

El Ayuntamiento ha trabajado las bases para la regeneración de la zona Santa Lucía-Guadalupe en el futuro



BIZIKLETA APARKALE- KUAK

28 bizikletentzat lekua duen aparkaleku estali berria jarri da Musika Eskola atzean mugikortasun eredu jasangarriak sustatzeko helburuarekin.

"Tolosa Badabil" mugikortasun jasangarri eta berdintasunerako planean jasotako lan lerrotako bati jarraituz, bizikletaren erabilera bultzatzea da Udalaren nahia.

TRIBUNA

Alderdien iritzia



Ospitale publikoa, Tolosan

Gure apustu eta konpromisoa da esku-aldeko ospitale publiko berria Tolosan kokatzea. Tolosak ditu biztanle gehien, eta horregatik, ez dugu zalantzan jartzen ospitaleak Tolosan egon behar duenik. Udal honi dagokio ospitalea Tolosan kokatzeko espazio egokiak aurkitzea, eta horretarako, eremu ezberdinen azterketa teknikoa egin dugu, une oro, informazioa herritarrekin, talde politikoekin eta Eusko Jaurilaritzarekin partekatuta. Etorbizuneko ospitalea bermatzeko kokapena zehaztea da proiektuaren lehen pausoa.

Helburua argi dugu, jarraitu beharreko bidea ere bai eta proiektu hau aurrera eramateko bermerik garbiena da, eskumena duenak, Eusko Jaurilaritzak, adieraztea berau gauzatuko duela. Urrats asko geratzen dira, baina orain artean emandakoak, publikoak eta eszenifikazio gabekoak, benetan garrantzitsuak izan dira eta lanean jarraituko dugu ahalik eta etorkizun hurbilenean eskualdeak ospitale publikoa izan dezan, hori bai, Tolosan.

Tenemos claro nuestro objetivo: construir un nuevo hospital público EN TOLOSA y estamos trabajando duro y dando pasos firmes en esa línea en defensa de los intereses y en repuesta a las necesidades de Tolosa y la población tolosarra.



Etxebizitza eskubide bat baino gehiago da. Izan ere, gainontzeko oinarritzko eskubideak garatzeko eta bizitza duina izateko ezinbestekoa ere bada. Administrazio publiko ezberdinak elkarlanean hori bermatzeko ardura dugu.

EH Bildurentzat etxebizitza beharrei aurre egiteko funtsezkoa da etxebizitza hutsak bere funtzio soziala bete dezatela, hau da, norbaiten bizileku izatea. Tolosan ia 300 etxebizitza huts daude. Udalak, 2015eko Etxebizitza legeak ematen dituen aukerak baliatuz, hauek merkaturatzeko pauso sendoagoak eman behar ditu, besteak beste, EH Bilduk 2011-2015 legegintzaldian martxan jarritako egitasmoak berreskuratuz

Alde zaharrak biziberritzeko interbentzio integrala behar du. Udala alde zaharreko eraikinak erosten joan beharko litzateke etxebizitza politika publikoak garatzen joateko eta alokairu soziala zein gazteei emantzipatzeko alokairuko aukerak handitzeko.

Gainera, Udalak azken urteetan ez du dirurik erabili etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko, nahiz eta aurrekontuetan horretarako partidak egon: 2019an 120.000 €-tatik zentimo bat bera ere ez zen erabili. Inbertsio handiagoak dituen etxebizitza plan indartsua martxan jartzea ezinbestekoa da.



Etxebizitza bat eskuratzeko da gaur egun Tolosan dugun arazorik handienetakoa bat. 30 urte bete arte gurasoen etxean bizitzera behartuta dauden gure gazteen emantzipazioa eragozten du. Metro karra-tuaren prezio altua dela eta, alokairuko etxebizitzak duen garrantziari dagokionez, Europarekin parekatu behar da etorkizuna.

El incremento progresivo del parque público de vivienda en alquiler debe ser un objetivo irrenunciable. Para ello, la construcción de nuevas viviendas es irrenunciable. Amaroz es un espacio que el Gobierno Vasco ha de desarrollar.

Las viviendas actualmente deshabitadas deben de ponerse en alquiler y para ello hay que generar alicientes. Muchas de ellas necesitan una rehabilitación integral. Para ello, el Ayuntamiento y el Gobierno Vasco a través de Bizigune da ayudas a las personas propietarias de viviendas vacías que requieran de una reforma integral para su habitabilidad y ponerlas luego en alquiler. Con el programa Bizigune la persona propietaria al ceder su vivienda para alquiler cobra una renta garantizada y la devolución de la misma en perfecto estado al término del contrato.

En tercer lugar, desde el Ayuntamiento se adjudican viviendas protegidas y de alquiler social en Agaramundu y en Euskal Herria plaza. También se conceden ayudas para el pago de alquiler.

KULTURA PLAZAZARA

EKAINA — UZTAILA // TOLOSAKO ZEZEN PLAZAN

**EN TOL SARMIENTO · ZETAK
OLATZ SALVADOR + IDOIA
GOZATEGI · SONAKAY · MARKAK
PURO RELAJO · ANNE ETCHEGOYEN
NIKOTINA + SKABIDEAN
TOLOSAKO UDAL MUSIKA ETA TXISTULARI BANDA + UDABERRI**



ABUZTUA — IRAILA kontzertu gehiago
Informazio guztia: www.kulturaplazara.eus



TOLOSAKO INAUTERIEN INGURUKO IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALIK BA AL DUZU?

TOLOSAKO FESTARIK HERRIKOI, PARTE-HARTZAILE ETA
JENDETSUENAREN JATORRIA, HISTORIA ETA EBOLUZIOA
AZTERTU ETA JASOKO DU UDALAK.



ERAMAN ZURE MATERIALA KULTUR ETXERA SAN JOANAK
BAINO LEHEN ETA JASO ZURE MATERIALA DIGITALIZATUTA



Antonio Maria Labaien kultur etxea
Trianguloa, 1
T: 943 67 03 88
kultura@tolosa.eus

Ordutegia:
Astelehenetik ostegunera:
09:00-22:00
Ostiraletan: 09:00-20:00

